

Kosmologiko



UXUE APAOLAZA LARREA

Joan den asteko “puf, ze beroa” horiek existentzialistak ziren, sakonetik epe luzera bidalitako aieneak, irautearen inertzia geurekoari eutsi ezinak sortuak (ez geure iraupen indibiduala, espeziearena baizik). Planetario baten klima hotzagoan, unibertsoaren handitasuna heriotza bezain tabu, bezain aztoagarri zaion berozale honek pentsatu du, agian, aizu, ez dela hainbesterako, ez dela ezer gertatuko Lurreko espezie batzuk, zer batzuk, den-denak desagertuta ere.

Munduko aberatsenak ohartuta daude horretaz, eta independizatu ziren aspaldi, ulertzeko gai ez, eta oztopoak jar ditzakeen oroz. Pandemia garaian ere ikusi genuen gai direla kutsatzaile txikiokin nahastu gabe ederki bizitzeko. Mundu zati garbi eta ederrak erosi dituzte, bakarrik mugitzen dira munduan barrena, mugarik gabeko nazio bat dute, oporleku eksklusibo eta guzti.

Eta gu, bitartean, zaborra banatzen jarri gaituzte, gure hondar alea zein baliagarria den esaten zaigu, gure artean haserretzeko gai gara ez hainbeste kontsumitutako Coca-Colak gure esku-arterako bidean eragindako suntsipenagatik, lata ontzi horira ez botatzeagatik baizik. Lorategia edo baratzetxea gehiegi ureztatzeagatik. Dirudunen bakea gara.

Aberats horiek ez dira berekoiak, ez noski, kosmologikoak dira. Donostiako planetariorik ospitaletara bidean, “bitu, ze pistinak!” ohartu da umea; bat, bi, hiru... Zer inporta zaizkie horiei Zubietako errekatxo bateko arrainak, kutsatzaile txikion osasuna, Zaldibarko zaborra gizajale bilakatzea... “Joango gara noizbait pistina horietara, ama?”. Entzun behar ez lituzkeen hitzak atera zaizkit ezezkoa ematean, ulertzen ez dituen klase egoismoz betetako azalpenak. Kosmologikoak horiek ere, izan ere, beren jet pribatuetatik guztiok puntu ezabagarri dirudigun arren, denok omen gara izaki bakar, paregabe, errepikaezinak. Eta ezertan lehenengoak ez bagara izan, ez gara izaten hasiko desagertzeko ordenan soilik. ●



Iran

Mahsa Amini 22 urteko emakume kurdua Teheranen atxilotu zuten, hiyab-a behar bezala jantzita ez eramateagatik. Komisaldegira eraman zuten, “berheziketa” saioa jasotzeko. Denbora gutxira ordea ospitalera eraman zuten koma egoeran. Bertan hil zen eta kasuak protesta ugari piztu du.

Lehortea

Lehortearen Mahaia aktibatu dute Nafarroan. 2012an deitu zuten azken aldiz Lehortearen Mahaia. Euririk egiten ez duela-eta, Landa Garapenak martxan jarri du berriz, sektorearekin diagnostiko bateratua egin eta prezipitazio faltaren bilakaera eta ondorioak jarraitzeko.

Alternatibak

Bizimodu alternatibo eta komunitarioak energia kontsumoa murriztu dezakeela ondorioztatu du ikerketa batek. EAEko eta Errekalear auzo askeko energia kontsumoa kalkulatu ditu EHUko ikerlari talde batek, aztarna energetikoan eragiten duten faktoreak ezagutzeko.